

AMETZA ABESBATZAREN OROITIDAZKIA

Berribeitin, Iruñerriko eta 10 kontzejutan banaturik 6.500 bat biztanle duen udalerrian, hasi zen AMETZA Abesbatzaren historia.

Egin dezagun 2005. urtera atzera eta, beren kantu zaletasunak eramanik, urrats bat egin eta kantu koralari buruz zuten ezagutza handitzeko garaia zela erabaki zuten lagun batzuk topatuko ditugu.

Lehen urratsa entseatu ahal izateko lokal bat aurkitzea izan zen eta hor izan ziren erabatekoak bertako agintarien laguntza eta haiekin bat etortzea, talde berriak behar zuen lokala eman baitzuten. Gero irakaslea kontratatzea etorri zen, taldearen kezkak hezurmamitu eta proiektuaren hasierako oinarriak finkatzea helburu.

Luze baino lehen, 2007an -bi urtetako saio, zalantza eta errealitateen ondoren-, gorpuztu eta hasi zen AMETZA Abesbatza gaur egun arte iraun duen ibilera berrian.

Egungo 28 kideek, soprano, altu, tenor eta baxu kordetan banaturik eta Patxi Martín Huarriz zuzendariaren gidaritzapean, gai anitzeko kantak ematen dituzte beren errepertorioan, erlijiosotik profanora, gaztelaniazko herri kantetatik euskal folklorera, nazioarteko estiloak ahortzi gabe, gorpela edo soinu afrikarrak esaterako.

10 urteko ibilbidearen ondoren, AMETZA Abesbatzak bere ahaleginak sariturik ikusi ditu eta gaur egun, etengabe ikasten baina, abesbatza sendotua da eta hemen berean eta probintzien arteko eremuan aritzen da, bai Nafarroako Abesbatzen Federazioaren bitartez, bertako kide baita, bai beste abesbatza batzuekiko trukeen bitartez.